

DESAGERTUTAKO

IRUN



HAUSER ETA MENET / AMI - IUA - POSTAL BILDUMA ES2942

DESAGERTUTAKO IRUN

Pedro Barruso Barés

DESAGERTUTAKO IRUN

«Desagertutako Euskal Herria» bilduma
Lehen edizioa: 2025eko azaroa

Testuen ©: Pedro Barruso Barés
Hitzaurrearen ©: Aitor Puche
Argazkien ©: hainbat egile
Edizioaren ©: Efadós argitaletxea
Bildumaren ©: Efadós argitaletxea

EFADÓS ARGITALETXE
Edison kalea, 3 - A pabiloia
Les Torrenteres industriagunea
08754 El Papiol (Bartzelona)
Telefonoa: 93 673 12 12
efados@efados.cat
www.efados.cat

Jatorrizko ideia eta diseinua:
Efadós argitaletxea

Azaleko argazkia:
Egile ezezaguna / AMI-IUA - Gorka Alvarez
Aranburu bilduma 57699

Artxiboak:
Archivo Municipal de Irún / Irungo Udal
Artxiboa (AMI-IUA)
Kutxa Fundazioa Fototeka
Kataluniako Mendizaletasun Zentroaren
Argazki Artxiboa (AFCEC)
Espainiako Liburutegi Nazionala (BNE)

ISBN 979-13-87658-39-7
Lege-gordailua: B-19437-2025

Obra hau edozein eratan erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki
komunikatzeko edo eraldatzeko, haren titularren baimena behar da
nahitaez, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Obra honen
zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jo ezazu CEDROra
(Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa) - www.cedro.org.

Aurkibidea

6. or.

HITZAURREA

Gerra Zibilaren garrantzia

8. or.

SARRERA

Etengabe aldatzen den hiria

13. or.

IRUN 1936RA ARTE

Hiriaren garapen handia

117. or.

IRUNGO SUTEA

Hiriaren 1936ko suntsiketa

139. or.

IRUNEN GARAPENA

Hiriaren berreraikuntza eta hedapena

184. or.

AURKIBIDE ALFABETIKOA

Hitzaurrea

GERRA ZIBILAREN GARRANTZIA

Aitor Puche, historialaria

runentzat, Gerra Zibila 1936ko uda hartan hasi eta bukatu zen. Ezinbesteko pasabidea zen mugaz bestaldeko Frantziako Errepublikarentzat, eta hura gobernuaren aldeko bandoarentzako orotariko laguntza bidaltzen zuen. Horregatik, Bidasoko hiri handia fronte populistaren gotorleku garrantzitsu bat bihurtu zen laster. Mola jeneralak muga kontrolatu nahi zuenez, ordura arte ikusi gabeko muturretaraino erabili zuen bere gudarako makineria, lehorretik, itsasotik eta zerutik aldi berean egin baitzuen eraso.


Irunen emakumeak agertu ziren lehen lerroan borrokan, aurreneko boluntario atzeritarrekin batera, zeintzuek haien gerra-taktiken eta armamentu moder-

noa erabiltzeko ezagutzarekin lagundu baitzioten Tokiko Defentsa Batzordeari, Iratxeta sozialista buru zuenari. Horregatik, bando erasotzailea jo eta su aritu zen, Nafarroatik zetozen zutabeen indarraz baliatuta: soldadu profesionalak, guardia zibilak, miliziano karlistak eta falangistak, besteak beste. Horiek, defendatzaileak ez bezala, armadako diziplina latzaren mendean laztuak ziren, hobeto koordinatuta zetozen, eta horrexegatik gailendu ziren azkenean. Horiek horrela, Irungo batailak Europa osoko prentsaren jakin-mina erakarri zuen, gerraren nondik norakoen eta nazioarteko esku-hartzearen kezak jota baitzebil.

Hiriaren oroimenean iltzatuta gelditu da inoiz izan duen demografia- eta hirigintza-hondamendirik handie-

na: azken erresistenteek, hiria defendatu ezina ikusita, irailaren 4an su eman ziotenekoa. Errepublikazaleen ihesarekin, Irunek populazioaren zati handi bat galdu zuen. Frankismoaren etorrerak, gainera, erabat desagerrarazi zuen Irunen berezko hondar liberal errepublikazale hori, Gipuzkoa barruan zuen kultura politiko bitxiaren bereizgarri izan zena.

Konkistaren sekulako propaganda egin zuen frankismoak. Hain zuzen, 1939ko «Garaipenaren Desfilea» zela-eta Madrilen eraikitako garaipenaren arkuko sei udalerrri enblematikoenen izenen artean egon zen Irun.



Sarrera

ETENGABE ALDATZEN DEN HIRIA

Pedro Barruso Barés, Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea

Trena Irunera heltzeak goitik behera aldatu zuen Bidasoko eskualdea. Irun, Frantziako muga-mugan, merkataritza-hiri gisa garatu ahala, indarra galdu zuen Hondarribiko gotorlekuak, XVIII. mendean amaieran Konbentzioaren Gerran ia suntsituta gelditu baitzen.

Garraibide berria Irungo motor ekonomiko bilakatu zen. Mugako merkataritza garatzearekin batera, aduana-agentzia ugari sortu zen, eta defentsarako murrizketen ondorioz industriak ezarri ezin ziren gunen hazten lagundu zioten.

Garapen ekonomikoarekin batera hiri-garapena etorri zen, XIX. mendean Irungo zabalgunea abiarazi zenean.

Garapen eta aberastasun horrek guztiak arazoak ere ekarri zituen, ordea; esaterako, etxebizitza eskuratzeko aukera falta, langileen lan-alorreko hobekuntzen aldarria eta aduana-araubidea aldatzeko aukera. Baina bat-batean zapuztu ziren, 1936ko irailean.

Gerra Zibilak gogor jo zuen Irun. Matxinoen helburuetako bat muga ixtea izan zen, eta, hortaz, gatazkaren lehen egunetatik bonbardatu zuten hiria. Indar errepublikazaleen erresistentziari esker, gogor ekin behar izan zioten Irun hartzeko, 1936ko irailaren hastapenean. Egun

EGILEEZAZAGUNA / AMH-LUA - JORGE BEHOBIDE BILDUMA 48947



IRUN. — Fiestas de San Marcial

BEHOBIKO GOTORLEKUA

Hauxe da, ziurrenik, dauka-
gun Irungo argazkirik zaha-
rrenetako bat. Hiria era
lazgarrian jo zuen Hiruga-
rren Karlistadaren garaikoa
da (1872-76). Irun armada
liberalaren esku gelditu
zen, eta gotortu egin zuten.
Hainbat gotorleku eraiki
zituzten; horietako bat,
Behobiko zubian, 1874ko
urriaren 12an karlisten
erasoa jasan zuena. Irudian
soldaduak ikus daitezke
Behobiko zubiaren Fran-
tziako aldean, Hirugarren
Karlistadaren garaian.
Frantziako mugazain-etxea
ikus daiteke, zeina, beste
aldekoa ez bezala, desa-
gertuta baitago egun.

EGILE EZEZAGUNA / AMI-LUA - JAVIER RODRÍGUEZ BILDUMA 40439



haietan, Errepublikako tropak erretiratzeaz bat, hiriko
zati handi bat suak hartu zuen.

Suteak egindako txikizioak bereziki jo zituen San
Juan plaza, haren ingurua eta Kolon pasealekuaren zati
handi bat, eta hiriko eraikin nabarmenenetako batzuk
desagerrarazi zituen.

Udalak 1938an onetsi zuen Irun Berreraikitze-
ko Proiektuak hiri-garapen berria planteatu zuen, su-
tearen aurrekoaren antza har zezan lehenbailehen.
Proiektuan arreta berezia jarri zitzaien eraikin ofizia-
lei, esaterako, Iparraldeko Mugen Burutzari (egungo
polizia-etxea) eta Zabaltza plazako Correosen eraiki-
nari. Oroitzapenezko monumentu handiak ere plani-
fikatu zituen –azkenean egin ez zirenak–, eta aditasun

handiz heldu zion etxebizitzaren gaiari, etxeen eskasia
handia baitzegoen artean Irunen.

Bada, hirurogeiko hamarkadako desarrollismoak haz-
kunde handia ekarri zuen. Muga eta industria-garapen
handia tarteko, murrizketak desagertutakoan garapen
handia iritsi zen, trenari esker, inondik ere. Hazkunde ho-
rrek inguru berrien hiri-garapena sustatu zuen, eta etxebi-
zitza ugari eraiki zen Irunera heldu ziren herritarrentzat.

Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hiriak hazten
jarraitu zuen «Desagertutako Irun»-en barrena egindako
ibilbidea amaitu ondoren ere. Etengabe aldatu da, hiri
orekatuago eta bizigarriagoa izateko bidean, hirugarren
sektorerantz jo bitartean, eta etorkizuneko Irunen oina-
rriak ezarri ditu.



HAUSER ETAMENET / AMI-IUA - POSTALEN BILDUMA 38399

IRUN 1936RA ARTE

Hiriaren garapen handia

1876an Gerra Karlista amaitu zenean, garapen handiko aldi bat hasi zen Irunen. Gatazka hura amaitzeak aukera eman zuen Zabalgunearen Proiektua abian jartzeko, alde zaharra eta trenaren ingurua lotuko zituen. Etorbide handi bat zen, egungo izena hartu aurretik «Trenaren etorbidea» deitu ziotena eta bi nukleo batzen zituen bizkarrezurra bilakatu zena: batetik, San Juan plazaren eta Junkaleko parrokiaren ingurua; eta, bestetik, trenbidearen geltoki inguruko hiri-garapen berria.

1841ean aduanak lekualdatzea onetsi zen, eta horixe izan zen Irungo garapenaren beste zutabe bat. Bidasoaren ibaiertzean ezin hobeto kokatuta egoteak eta trenaren eta errepideen bitartez Frantziarekin lotzeak merkataritza-jarduera handia ekarri zuen.

Hala eta guztiz ere, hiria garatu ahala, populazioa ere halaxe hazi zen, eta jendea inguruko landaguneetara iritsi zen, enplegu hobe lortzeko aukera bila. Horrek etxebizitza-arazo handia sortu zuen Irunen, eta askotariko irtenbideak bilatu behar izan zizkioten hogei-ko eta hogeita hamarreko hamarkadetan.



EGILEEZAZAGUNA / AMI-HUA - Galdós familia bilduma 40604



GARCÍA-CONDE / AMI-HUA - 775/12 ESPEDIENTEA (38714)

AUTOMOBILEN INPORTAZIOA

Automobilak Fermin Calbetón kalean, Vda. de A. Fernández garraio- eta aduana-agentziaren egoitzaren aurrean, 1920 inguruan. xx. mendeko lehen hamar-kadetán errepidezko garraioa zabaldu zen, eta Irundik sartzen ziren Espainiara hainbat eta hainbat salgai, esaterako, argazkian bezala, autoak.

OSPITALE BERRIA

xx. mendearen hasieran, Irunek hainbat zerbitzu garrantzitsu sortu zituen, Irungo ospitalea, adibidez. Haren pabiloiak ikusgai ditugu xx. mende hasieran hiriaren herrigune osoa ikus zitekeen Ibaietako gainetik egindako argazkian.